

DIRU ITURRIAK

Enpresa bati hasiera emateko, hainbat diru iturri lortzea ezinbesteko da. Bestela ezingo diegu kostuei aurre egin eta enpresa porrot egingo luke. Diru sarrerak leku desberdinetatik lortuko ditugu: Produktutik (hau salduz), bankutik, administrazio publikotik ...

Koaderno teknologikoa gure produktua izango da eta prezio logiko batean salduko beharko dugu, gure kostuei aurre egiteko eta mozkinak lortzeko. Baina, aldi berean, salmenta-prezioa eskuragarria izan behar da, bestela kontsumitzaileek ez dutelako produktu hau erosiko. Honen ondorioz, prezioa 500€-koa izango da.

Ekintzaile askok bankuetara jotzen dute eta gaur egun, mailegu bat bueltatzea zaila izan arren, kreditu lerro batzuk baino konfiantza gehiago eskaintzen dute. Adibidez, banku batek interes altuagoak eskatu ditzake, baina kreditu lerroei beraiek ezarritako guztiz bete behar da eta ez da oso segurua.

Gure enpresarentzat diru iturri nagusietariko bat administrazio publikoak edo Estatuak gure ezaugarrien arabera emandako diru-laguntzak izango dira. Bereziki, hiru laguntza hautatu ditugu: Emakumearen institutua EMANDAKOAK, EBT eta Neotec eta murrizketa fiskala.

Emakume ekintzaileen laguntzarako programa Emakumearen Institutuak bultzatzen du (Lan eta gai sozialen ministerioren barnean dagoena) eta diru laguntzak Europako gizarte-funtsak finantzatzen du. Aldi berean, programaren barnean La Caixak kolaboratzen du, bereziki, finantzazio lerroa martxan jarri, mini kredituen bidez 15.000€-koak direnak.

Neotec programaren helburua oinarri teknologikoa duten enpresen sorkuntza eta merkatuan egonkortasuna lortzea bultzatzen du, enpresa hauek garatu ahal izateko eta 175.000€-tik 25.000.000€-ra izan daiteke. Oinarri teknologikoa duen enpresa bat (EBT) jardungo du produktu edo zerbitzuen esplotazioan, inbestigazioaren bitartez. EBT-ak beraien negozio-estrategia jakintza zientifiko eta teknikoaren nagusitasunean oinarritzen da.

Beste alde batetik, ekonomia eta lehia ministerioak %35 eta %60 arteko murrizketa fiskala eskaintzen dute, inbestigazioa eta teknologia garapena bultzatzen duten enpresentzat.

Azkenik, gure produktua, bereziki, hezkuntzaren munduan guztiz iraultzailea izango da. Horregatik, eskola desberdinekin akordioak edo kolaborazioak egin beharko ditugu eta kantitate handiagoak izango direnez prezio eskuragarriago batean eskainiko ditugu. Gainera, teknologiarekin erlasionaturiko enpresa askok egiten duten bezala, Media markt eta El Corte Inglés saltokiekin akordioetara helduko gara (diruaren truke) gure koaderno bertan saldu ahal izateko. Beraiek diruaren zati bat irabaziko dute eta guk beste bat.